BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3174

139/2014 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen lanpostu-zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzen duena.

Azaroaren 21eko 237/2012 Dekretuaren bidez, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen lanpostu-zerrendak onartzen dira.

Lanpostuen zerrendak Justizia Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko txostena jaso duten aldaketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521., 522. eta 523. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Hori dela eta, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez –hala jasota baitago Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 3. artikuluan–, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko uztailaren 1ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartzea Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeari dagozkion lanpostuen zerrendan egindako aldaketak. Zerrenda horiek dekretu honen eranskinean daude jasota.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko uztailaren 1ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

ERANSKINA, UZTAILAREN 1EKO 139/2014 DEKRETUAREN

ALDAKETEN ZERRENDA

Aldaketa mota: Kendu
Saila: Herri Administrazioa eta Justizia
Kudeaketa atala: Justizia Administrazioko Zuzendaritza
Destino Zentroa: Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Bizkaiko Zuzendariordetza
Udala: Bilbao

Aldaketa mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Udala	Betetzeko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berariazko ezagutza	Dedikazioa	H.E.	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berariazko osagarri	Oharrak
Kendu	240001	11	Orotariko Auzitegi-Medikua	G	Bilbao	LO	A	Auzitegi medikua	Medikuntzan lizentziatua	001	Esklusiboa				18.565,68	2.347,44	Jagoletzak
Kendu	240001	15	Orotariko Auzitegi-Medikua	G	Bilbao	LO	A	Auzitegi medikua	Medikuntzan lizentziatua	001	Esklusiboa				18.565,68	2.347,44	Jagoletzak

Saila: Herri Administrazioa eta Justizia
Kudeaketa atala: Justizia Administrazioko Zuzendaritza
Destino Zentroa: Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Gipuzkoako Zuzendariordetza
Udala: Donostia

Aldaketa mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Udala	Betetzeko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berariazko ezagutza	Dedikazioa	H.E.	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berariazko osagarri	Oharrak
Kendu	240001	1	Orotariko Auzitegi-Medikua	G	Donostia-San Sebastián	LO	A	Auzitegi medikua	Medikuntzan lizentziatua	001	Esklusiboa				18.322,92	2.347,39	Jagoletzak

Aldaketa mota: Sortu
Saila: Herri Administrazioa eta Justizia
Kudeaketa atala: Justizia Administrazioko Zuzendaritza
Destino Zentroa: Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Bizkaiko Zuzendariordetza
Udala: Bilbao

Aldaketa mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Udala	Betetzeko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berariazko ezagutza	Dedikazioa	H.E.	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berariazko osagarri	Oharrak
Sortu	230002	8	Auzitegiko Medikua Psikiatrian Aditua	B	Bilbao	LB	A	Auzitegi medikua	Medikuntzan lizentziatua	008	Esklusiboa				18.565,68	3.471,12	Jagoletzak
Sortu	230002	9	Auzitegiko Medikua Psikiatrian Aditua	B	Bilbao	LB	A	Auzitegi medikua	Medikuntzan lizentziatua	008	Esklusiboa				18.565,68	3.471,12	Jagoletzak

Saila: Herri Administrazioa eta Justizia
Kudeaketa atala: Justizia Administrazioko Zuzendaritza
Destino Zentroa: Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Gipuzkoako Zuzendariordetza
Udala: Donostia

Aldaketa mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Udala	Betetzeko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berariazko ezagutza	Dedikazioa	H.E.	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berariazko osagarri	Oharrak
Sortu	230002	10	Auzitegiko Medikua Psikiatrian Aditua	B	Donostia-San Sebastián	LB	A	Auzitegi medikua	Medikuntzan lizentziatua	008	Esklusiboa				18.322,92	3.471,10	Jagoletzak

Ezagupen Berezituak

001 Auzitegi Medikuntzaren berezko jarduera-arloetan ezagutza eta esperientzia.
008 Psikiatrian aditu-prestakuntza.